

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako ekonomia %3,3 hazi da urtetik urtera begiratuta, Estatukotik bi hamarren gorago

Foru Gobernuak aurtengorako BPGdaren hazkundearen aurreikuspena eguneratu du; hots, %2,2tik %3,1era igo da

Ostirala, 2017.eko uztaialak 28

Garapen Ekonomikoko lehendakariordeak, Manu Ayerdik, gaur goizean berretsi du Nafarroako ekonomiak [hiruhileko hazkundeari eusten diola](#), eta bigarren hiruhileko honetan errepikatu dela %0,9ko aurrerapena aurtengo lehen hiru hilabetetan erregistraturiko Barne Produktu Gordinean (BPGd).

Hiruhileko igoera hori Ayerdi lehendakariordearen hitzetan "oso altua" da, eta horrek "bizkortu eta areagotu egin du" Nafarroako ekonomiaren hazkundera, urtetik urterako terminoetan %3,3ra iritsita (2017 ko bigarren hiruhilekoa, 2016ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta). Urteko lehen hiruhilekoan, urtetik urterako igoera %3,1ekoa izan zen eta 2016ko azkenekoan %2,7koa.

Garapen Ekonomikoko lehendakariordeak esaten jarraitu du "BPGdaren hazkundearen datu onak berresten duela gainerako adierazleak erakusten ari direna urtea hasi zenetik; hots, eskualdeko jarduera ekonomikoa aurreratu genuena baino indartsuagoa eta gogorragoa dela".

Baina, Manu Ayerdik aurreratu du aurten hazkunde ekonomikoa baretzea aurreikusten zutela interes-tasen bilakaera, lehengaien prezioa eta dibisen kotizazioa medio, eta "balitekeela hori hirugarren hiruhileko honetan zehar antzematen hastea". Gainera, gehitu du "adierazle gehienek aurrerapenen lasaitzea erakutsi dutela ekainean".

Testuinguru horretan, Nafarroako Gobernuak aurtengorako BPGdaren hazkunde-aurreikuspena eguneratu du, eta duela urtebete kalkulaturako %2,2tik %3,1era igo du. Goranzko berrikuspen hori instituzio ezberdinek egindakoen antzekoa da; esate baterako, BBVak %2,4tik %3,1era igo du eta Laboral Kutxak %2,6tik %3,0ra.

Estatuan baino bi hamarren gehiago

Ayerdi lehendakariordeak adierazi du "Nafarroako garapen ekonomiko ona bat datorrela Estatuko gainerakoek esperimendatzen dutenarekin"; izan ere, hiruhileko igoera %0,9koa izan da baita ere eta urtetik urterakoa %3,1ekoa, Foru Komunitatean kontabilizatutakoa baino bi hamarren azpitik.

Manu Ayerdik ondorengo berretsi du: "koiuntura-adierazleek zerbitzuak jartzen dituzte jarduera ekonomikoa areagotzearen arduradun

gisa". Halaber, honako hau gehitu du: "bilakaera horrek azaltzen du kontsumoan egindako gastua (pribatua nahiz publikoa) dela eskualdeko hazkundera batez ere eragiten duena".